# zabaldu atia euskeriari



**Antzuola**

**Bergara**

**Oñati**

## LANA ETA ZERBITZUAK EUSKARAZ NAHI DITUZUN HORRENTZAT

Zure zerbitzuak euskaraz eskaini nahi dituzun horrentzat prestatu dugu katalogotxo hau, lagungarri izango zaizula pentsatuz. Jakin ezazu, beraz, Udaletako euskara zerbitzuetan behar duzun guztian izango gaituzula laguntzeko prest.

**Euskara Zerbitzua**
**Antzuolako Udaletxea**
**943-76 62 46**

**Euskara Zerbitzua**
**Bergarako Udaletxea**
**943-77 91 66**

**Euskara Zerbitzua**
**Oñatiko Udaletxea**
**943-78 04 11**

*Este catálogo está dirigido a todas aquellas personas interesadas en ofrecer sus servicios también en euskera. Si ha decidido hacerlo así, los Servicios de Euskera les ofrecen su colaboración.*

**Euskara Zerbitzua**
**Antzuolako Udaletxea**
**943-76 62 46**

**Euskara Zerbitzua**
**Bergarako Udaletxea**
**943-77 91 66**

**Euskara Zerbitzua**
**Oñatiko Udaletxea**
**943-78 04 11**



# zabaldu atia euskeriari

## EGIN EZAZU EUSKARAREN ALDEKO APUSTUA! KOMENI ZAIZULAKO!

### ETORKIZUNA EUSKARAZ DATOR

Bergara gero eta euskaldunagoa da:

- Gaur egun bergararren %70ek ondo daki euskaraz eta beste %10 batek ulertzen du.
- 25 urtez azpiko bergararren %93k ondo daki euskaraz eta beste %5ak ulertu egiten du.

Datuek erakusten dute bezero gehienak euskaldunak direla eta etorkizunean ia bezero guztiak izango direla euskaldunak.

Negozioan erabiltzeko hizkuntza erabakitzerakoan, errealitate honetara egokitu eta herriaren hizkuntza egoera kontuan izan behar duzuela uste dugu. Zenbat eta zerbitzu euskaldunagoa eskaini, orduan eta hobeto txertatuta egongo zarete herrian.

Gainera, gero eta enpresa eta komertzio gehiago dira, Debagoienean, euskaraz jardutea erabaki dutenak, zerbitzua euskaraz eskaintzea kalitate eta prestigio ezaugarri bihurtu da eta.



# zabaldu atia euskeriari

## UDALETIK GURE LAGUNTZA ESKAINTZEN DIZUGU

Zure negozioan, euskara gero eta gehiago erabili nahi baduzu, jakizu Udalak hizkuntza-zerbitzu batzuk eskaintzen dizkizula eta ondoren aipatzen diren laguntzak zure eskura ipintzen dituela.

*En Bergara, el 70% de la población y el 93% de los jóvenes hablan euskera. Creemos que es un dato a tener muy en cuenta cuando vayan a decidir el tratamiento que van a dar al euskera en su negocio. Además no hay que olvidar que muchos comercios y empresas de la comarca ofrecen sus servicios en euskera, lo que se ha convertido en distintivo de calidad y prestigio. El Ayuntamiento, mediante el Servicio de Euskera, les ofrece la ayuda necesaria para que el no saber euskera no sea un obstáculo insalvable.*



# zabaldu atia euskeriari

## HIZKUNTZA

## AHOLKULARITZA

# TESTU EREDUAK

Behin eta berriz erabiltzen dituzun agirien ***euskarazko ereduak eskainiko dizkizugu***: gutunak, ordainagiriak, fakturak, aurrekontuak, nominak...

# HIZKUNTZA ETA TERMINOLOGIA KONTSULTAK

Euskaraz idazterakoan sortzen zaizkizun ***zalantzak argitzen lagunduko dizugu.***

# TESTU ZUZENKETA

Zuk euskaraz idatzitako testuak inolako akatsik ez izatea nahi baduzu, zuzendu egingo dizkizugu. ***Zuk idatzia egin eta guk zuzendu.***

# ITZULPENAK

Eta ahalegindu arren, edozein arrazoi dela eta, zuk ezin baduzu testua euskaraz egin, ***guk euskaratuko dizugu,*** ondorengo baldintza hauek betez gero:

- *Testua zabalpen publikorako izan beharko da.*
- *Ezingo da erakunde publiko batera (Udala, Jaurlaritza, Diputazioa...) zuzendu beharreko testua izan.*
- *3 orrialdetik beherako testua izan beharko du. Testua luzeagoa bada, kasua aztertu eta erabakiko da zer egin: bertan egin edo itzultzaile profesional batengana jotzeko esan.*
- *Ahal bada disketean eta bestela makinaz edo letra txukunez idatzita ekarri beharko da.*

## Asesoramiento lingüístico:

*Le ofrecemos los siguientes servicios:*

- *Modelos de textos: Le ofrecemos los modelos de textos de uso habitual: cartas, facturas, nóminas...*
- *Consultas terminológicas y lingüísticas*
- *Corrección de textos*

# MERKATARIENTZAKO KARTELAK

Goian aipatutako guztiaz gain, zure establezimenduan jarri nahi dituzun jendaurreko kartel komertzialak egingo dizkizugu, euskarazko testuari lehentasuna emanez (tokia, neurria, intentsitatea...).




- *Traducción de textos: Deberán ser textos de difusión pública y no se traducirán los textos dirigidos a entidades públicas. En principio se realizarán traducciones de textos de menos de 3 páginas y en los casos de trabajos de mayor longitud el Servicio de Euskera valorará si puede asumir el trabajo y, en caso contrario, aconsejará al interesado para que acuda a una empresa de traducción. Los textos a traducir deberán ser fácilmente legibles y se entregarán, a ser posible, en soporte informático.*
- *Carteles para comerciantes: Le realizaremos los carteles comerciales que vaya a colocar en su establecimiento dando siempre prioridad al euskera.*

# zabaldu atia euskeriari



## ERROTULUAK ETA IRUDI KORPORATIBOA EUSKALDUNTZEKO DIRULAGUNTZAK

**Poltsak, fakturak,**

**albaranak,**

**aurrekontu orriak,**

**errotuluak...**

# ERROTULUAK EUSKARAZ JARTZEKO DIRULAGUNTZAK

## • Kanpoko errotulu nagusia

Errotulua euskara hutsez jarriz gero, kostuaren %50 ordainduko dizu Udalak. Dirulaguntza, gehienez ere, 300 eurokoa izango da.

*Baldintzak:*

- *Errotuluko testua zuzen idatzita egon beharko da*
- *Izaera ez ofizialeko entitateek bakarrik jaso ahal izango dituzte dirulaguntza hauek.*
- *Errotuluan izen propioa agertzen bada bakarrik, ez da inolako dirulaguntzarik emango.*
- *Bateraezinak izango dira kontzeptu honetan Udalak eman lezakeen dirulaguntza eta publizitatearen izenean errotulu beragatik enpresa batek eman lezakeena.*

## • Barruko errotuluak

Euskarazko testuari ematen badiozu lehentasuna (tokia, neurria, intentsitatea...) kostuaren %50 ordainduko dizu Udalak. Dirulaguntza, gehienez ere, 300 eurokoa izango da.

*Baldintzak:*

- *Errotuluko testua zuzen idatzita egon beharko da.*
- *Izaera ez ofizialeko entitateek bakarrik jaso ahal izango dituzte dirulaguntza hauek.*

## Ayudas para la colocación de rótulos en euskera

*• Rótulo principal: Si colocan el rótulo principal en euskera, el Ayuntamiento les abonará el 50% del costo total. La ayuda concedida será como máximo de 300 euros.*

*• Rótulos interiores: Si le dan prioridad al texto escrito en euskera, el Ayuntamiento les abonará el 50% del costo total. La ayuda concedida será como máximo de 300 euros.*

*Condiciones para recibir la subvención: el texto del rótulo deberá estar correctamente escrito, para lo cual podrán solicitar el asesoramiento necesario en el Servicio de Euskera. Solamente recibirán la ayuda citada las entidades de carácter no oficial; no se concederá ninguna ayuda. en caso de que en el rótulo conste solamente un nombre propio.*

*Serán incompatibles las ayudas que el ayuntamiento pueda ofrecer por este concepto y las aue en concepto de publicidad conceda cualquier otra entidad por el mismo rótulo.*

## IRUDI KORPORATIBOA EUSKALDUNTZEKO DIRULAGUNTZAK

Euskarazko testuari ematen badiozu lehentasuna (tokia, neurria, intentsitatea...), kostuaren %50 ordainduko dizu Udalak. Dirulaguntza, gehienez ere, 300 eurokoa izango da.

Bergarako Udalak honako hauek hartzen ditu, besteak beste, irudi korporatiboaren elementutzat:

- Kartazalak
- Paperetako menbretea
- Bisita-txartelak
- Identifikazio-zigilua
- Inprimakiak: albaranak, fakturak...
- Produktuak biltzeko papera
- Poltsak
- Ibilgailuen errotulazioa

*Baldintzak:*

- *Testua zuzen idatzita egon beharko da*
- *Izaera ez ofizialeko entitateek bakarrik jaso ahal izango dituzte dirulaguntza hauek.*
- *Irudi korporatiboko elementuetan izen propioak agertzen badira bakarrik, ez da inolako dirulaguntzarik emango.*

## Ayudas para euskaldunizar la imagen corporativa

*Si le dan prioridad al texto escrito en euskera, el Ayuntamiento les abonará el 50% del costo total. La ayuda concedida será como máximo de 300 euros. Entendemos como imagen corporativa los siguientes elementos: sobres, membretes, tarjetas de visita, sello del establecimiento, impresos (facturas, albaranes...), papel de envolver, bolsas y rotulación de vehículos.*

*Condiciones para recibir la subvención: el texto deberá estar correctamente escrito, para lo cual podrán solicitar el asesoramiento necesario en el Servicio de Euskera, solamente recibirán la ayuda citada la entidades de carácter no oficial y si en el rótulo constasen solamente nombres propios no se concederá ninguna ayuda.*



zabaldu
atia
euskeriari

# EGUNEROKO JARDUNEAN ERABILTZEKO EREDUAK

**- OrdutegiA -**

Astelehenetan
16:00 - 20:00

Martitzenetik egubakoitzera
10:00 - 13:00
16:00 - 20:00

Zapatuetan
10:00 - 14:00

---

**.OrdutegiA.**

Astelehenetik egubakoitzera
10:00 - 13:00
16:00 - 20:00

Zapatuetan eta domeketan:
7:00 - 16:30

---

**Abuztu osoan**
goizez bakarrik zabalduko dugu
08:00 - 14:00

---

**Martitzenetan itxita**
asteroko atseden eguna

---

**Enkarguak hartzen ditugu**

---

OPORRAK
irailaren 2tik 24ra
itxita

---

ORAINTXE
ETORRIKO
NAIZ

---

**GABONETAKO**
**LOTERIA**
dugu

---

**JENDEARENTZAKO**
**ORDUTEGIA:**
**08:00-20:00**

---

**BERTAKO**
**LEKAK**

---

Abuztu osoan
goizez bakarrik
zabalduko dugu.
08:00-14:00

| | Entidad | Oficina | D. C. | Número de cuenta |
|---|---|---|---|---|
| CCC | XXXX | XXXX | X X | XXXXXXXXXX |
| IBAN | ESXX XXXX XXXX XXXX XXXX XXXX | | | |

Eur //1.570,50-// €

Txeke honen ordez Páguese por este Cheque a **Eramailea** ri ordain

Euros **// Mila bostehun eta hirurogeita hamar eta berrogeita hamar zentimo//**---------------------------------

Euro

**Arrasate, 2002ko Azaroa** ren de **Hogeita bi** a. de

Eguna, letraz Idatz • Escribir la fecha en letra

Saila Serie **AA** Zk. N.º 0.000.000-0 4200 0

⑆0000000⑆0000⑆ 0000⑆ 0000000000⑈ ⑆200⑈

## Txekeak euskaraz nola bete • Cómo rellenar los cheques en euskara

**1 - Onuraduna** • Beneficiario/a

**Eramaileari** • Al portador

- I (Xabier Ruiz-i) kontsonantez bukatuz gero • Terminado en consonante.
- Ri (Itziar Ugarte-ri) bokalez bukatuz gero • Terminado en vocal.

**2 - Euros** • Euros

**Zenbakiak honela idazten dira** • Los números se escriben así:

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 0: Zero | 8: Zortzi | 16: Hamasei | 30: Hogeita hamar | 80: Laurogei | 0,50: Berrogeita hamar euro zentimo |
| 1: Bat | 9: Bederatzi | 17: Hamazazpi | 31: Hogeita hamaika | 90: Laurogeita hamar | 15,10: Hamabost eta hamar zentimo |
| 2: Bi | 10: Hamar | 18: Hamazortzi | 32: Hogeita hamabi | 99: Laurogeita hemeretzi | 1570,50: Mila bostehun eta hirurogeita hamar eta berrogeita hamar zentimo |
| 3: Hiru | 11: Hamaika | 19: Hemeretzi | 33: Hogeita hamahiru | 100: Ehun | |
| 4: Lau | 12: Hamabi | 20: Hogei | 40: Berrogei | 200: Berrehun | |
| 5: Bost | 13: Hamahiru | 21: Hogeita bat | 50: Berrogeita hamar | 300: Hirurehun | |
| 6: Sei | 14: Hamalau | 22: Hogeita bi | 60: Hirurogei | 400: Laurehun | |
| 7: Zazpi | 15: Hamabost | 23: Hogeita hiru | 70: Hirurogeita hamar | 500: Bostehun | |

**2 - Data** • Fecha

-**Urteko hilabeteak hauek dira euskaraz** • Estos son los meses del año en euskara

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| (1) Urtarrila | (3) Martxoa | (5) Maiatza | (7) Uztaila | (9) Iraila | (11) Azaroa |
| (2) Otsaila | (4) Apirila | (6) Ekaina | (8) Abuztua | (10) Urria | (12) Abendua |

**Adibidea** • Ejemplo

**(Hiriaren izena)** **2002ko Azaroaren zazpia**

ERREZIBU ZK. | BIDALKETA HERRIA | ZENBATEKOA

BIDALKETA DATA | MUGAEGUNA

Behean aipatu ordaintzailearengandik honako diru-kopuru hau jaso dut: ____________

Azalpena: ____________

AURREZKI KUTXA/BANKUA | BULEGOA | KODEA EDO KONTU ZENBAKIA

ORDAINTZAILEAREN IZENA ETA HELBIDEA

(BIDALTZAILEAREN SINADURA ETA IZENA)

**Xamur**
haragitegia

**Prest**
aholkularitza

**Ainhoa**
oihalak




GABONETAKO ZOZKETA
3 euro dira
**Zkia. 02309**
2002ko abenduak 22
Zkia.
Itzal taberna

GABONETAKO ZOZKETA
Ordainagiri hau daramanak 5 euro jokatzen ditu aipatutako zenbakian
2002ko Abenduaren 22ko Loteria Zozketan
Zkia. 02309
3 euro dira
Zkia
Itzal taberna

Eguzkilore, loradenda
Bidekurutzeta 4
Tf. 943 76 43 43
20570 BERGARA

**BIZKOR garraioak**

Tf. 943 78 33 22
Eskuko tf. 629 45 69 02

20560 OÑATI
(Gipuzkoa)

Menua

Urdaiazpiko iberiarra
Mendabiako esparragoak
Otarrainska egosiak
Denetariko frijituak
Otarrainskak plantxan
Txirlak marinel eran

Hegazti-salda edo Itsaski-krema

Legatza labean

Solomotxoa grilean , ilar, txanpinoi
eta pikillo piperrekin

Hostopila izozkiarekin
eta txokolatearekin

# Faktura

DATA

ZENBAKIA

IZENA | I.F.K./N.A.N.

HELBIDEA | HERRIA

| KOPURUA | AZALPENA | PREZIOA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|---|
| | | | |

BALDINTZAK

GUZTIRA

B.E.Z.: (%   )

ORDAINTZEKO GUZTIRA

---

**ARIN kirol denda**
Buztinzuri 17
20577 Antzuola
Tf.: 943 00 00 00

Kirolbi biltegia
Barrenkalea, 20
20570 Bergara

Jaun/Andre hori

Gutun honen bidez, uztailaren 2ko zuen eskutitza jaso dudala adierazten dizut.

Bidalitako katalogoak aztertu ditut eta behean adierazten dizkizudan produktuen informazio zehatzagoa lehenbai-lehen bidaltzea eskertuko nizuke.

- Koloretako mailak
- Neguko oinetakoak

Zure erantzunaren zain,

Antzuolan, 2003ko uztailaren 26an

Manu Arin

---

# ALAI ELKARTEA

Bazkidea. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . Zkia. . . . . . . .

| | KOPURUA | PREZIOA | PEZETAK / EUROAK |
|---|---|---|---|
| **EDARI BOTILAK** | | | |
| Erreserba ardoa | | | |
| Gorri berezia | | | |
| Ardo beltza | | | |
| Gaseosa | | | |
| Txanpaina, handia | | | |
| Txakolina | | | |
| Sagardoa | | | |
| **APERITIBOAK** | | | |
| Vermouth | | | |
| Bitter | | | |
| Kas | | | |
| Koka kola | | | |
| Tonica | | | |
| Garagardoa | | | |
| **KOPAK** | | | |
| Magno | | | |
| Ginebra | | | |
| Melokotoi likorea | | | |
| Whiskya | | | |
| Patxarana | | | |
| Bayleis | | | |
| Lepanto | | | |
| Cacique | | | |
| Chivas | | | |
| **KAFE ETA TABAKOAK** | | | |
| Kafe hutsa | | | |
| Deskafeinatua | | | |
| Tea | | | |
| Mantzanila | | | |
| Farias-Rosli | | | |
| Ducados | | | |
| Winston | | | |
| **KONSERBAK** | | | |
| Antxoak | | | |
| Atuna | | | |
| Melokotoia | | | |
| Madaria | | | |
| Piña | | | |
| Tripakiak | | | |
| Piper gorriak | | | |
| Idarrak | | | |
| Esparragoak | | | |
| Olibak | | | |
| Patatak | | | |
| Olio botila txikia | | | |
| Olio botila | | | |
| **ZERBITZUAK** | | | |
| Mantelak | | | |
| Serbilletak | | | |
| Bazkari edo afariak | | | |
| Ikatza, zakua | | | |
| **TELEFONOA** | | | |
| Paso bakoitzeko | | | |

KUOTA . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Data

Guztira
Sarrerak
Alde
Kontra

---

# 2003

**URTARRILA**

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

**OTSAILA**

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | | |

**MARTXOA**

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |
| 31 | | | | | | |

**APIRILA**

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | | | | |

**MAIATZA**

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |

**EKAINA**

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | | | | | | |

**UZTAILA**

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

**ABUZTUA**

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |

**IRAILA**

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | | | | | |

**URRIA**

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

**AZAROA**

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |

**ABENDUA**

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | 31 | | | | |

**Lesaka Taberna**
Bidekurutzeta 10
Bergara



Antzuolako Udala

Bergarako Udala

Oñatiko Udala